

# LATIN ETA GREZIAR PERTSONA-IZEN KLASIKOAK EUSKARAZ EMATEKO IRIZPIDEEI BURUZKO ERABAKIA

---

## ARAU OSATUA, EGUNERATUA ETA EMENDATUA

### 1- 1997ko araua

1997an, 76. araua onartu zuen Euskaltzaindiak: *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*. Hona hemen 1997ko arau horren sarrera eta irizpideak:

-----

#### 1. Sarrera arazoaz eta tradizioaz

Euskarak, irakaskuntza arloan egindako aspaldiko sarreraz geroztik, gero eta kultur eremu hedatuagoak eskuratu ditu, batez ere Euskal Herriaren zati batean ofizialtasuna lortu zuenetik. Hori dela eta, bai testuliburu, entziklopedia eta era guztietako liburuetan, oraintsu arte gure hizkuntzan ukitzen ez ziren gai asko ageri zaizkigu euskaraz. Eta horrexegatik sarritan zalantzak sortzen dira, alde batetik tradizio handirik gabeko izenak ditugulako eta, bestetik, gure inguruko bi erdaren jokabideak, maiz gure irakaskuntzako hizkuntza nagusi izandakoak, beti bat ez datozelako.

Euskaltzaindiak bere-bereak dituen zereginak gogoan izanik, arretaz ikusi ditu idazleen eta irakasleen kezak eta eskariak, eta orain arte, bere Onomastika batzordearen bidez prestatuturiko kontinente, estatu, hiriburu, hizkuntza, probintzia, itsaso, mendi, ibai, uharte-izenen zerrendak aztertu, onartu eta argitaratu ditu, euskal gizartetik heltzen zaizkion premia horiei erantzuteko.

Zalantzazko izen propioen artean pertsona-izenak ere badira, eta duela gutxi santuen izendegia plazaratu du Euskaltzaindiak, hutsune hori betetzeko lehen pausotzat. Oraingo honetan Antzinate Klasikoko pertsonaia historiko erabilienetakoen izenen zerrenda hau aurkezten du, aurrekoen antzera, euskaldunei laguntza emanen dielakoan.

Berau ere ez da ezerezetik abiatzen. Gutxi edo asko, hemen azaltzen diren izen batzuek sarrera izan dute gure idazle klasikoen lanetan eta horiek idazteko tradizio anitz izan dira. Adibidez, *Vergili*, *Bergili*, *Bergilio*, *Virgile*, *Virgili*, *Virjilio*, *Virgilio*, *Birgili*, *Birjilio*, *Birgilio* formen lekukotasunak aurkitu ditugu, edo *Kikero*, *Kikeron*, *Cicero*, *Ciceron*, *Zizeron*, bai eta *Jenofonte*, *Xenophon*, *Xenofon*, *Xenoponta*, *Xenofonte* edo *Antiochos*, *Antiochus*, *Antioco*, *Antioka*, *Antiokus*, *Antioko*.

Baina tradizio guztien artean badirudi bat dela izenen forma edo eduki fonikoaren osaketari dagokionean gailentzen dena, hala Ipar nola Hego Euskal Herriko idazleen artean, bai idazle zaharretan bai berriagoetan: *Lazaro* eta *Nazareno* irakurtzen dira Leizarragaren lanetan; *Liurio*, *Theodosio*, *Octauio*, *Augusto*, *Ciceron*... Axularrenean; *Boecio*, *Virgilio*, *Platon*... Etxeberri Sarakoaren eskuizkribuan; eta *Virgilio*, *Bruto*, *Horazio*... idatzi zuen Koldo Mitxelenak. Labur esateko, latinez *-us*, *-i* ondarkiak zituztenak *-o* bukaerarekin erabili dira euskaraz, latinezko *-ns*, *-ntis* euskaraz *-nte* izan da, latinezko *-o*, *-onis* euskaraz *-on*, etab., gehienetan latinezko kasu oblikuoetan oinarrituz. Berauek dira orobat funtsean azken urteetan, Elhuyar elkarteak *Munduko pertsona-izenak* liburuan proposaturikoa jarraituz, entziklopedietan, itzulpen bilduma garrantzitsuetan, testuliburugintzan... nagusitzen ari diren formak.

Grafiari dagokionean, geografia-izen berezietan eta santutegiko izen ohikoenei buruzko erabakietan adierazitako arrazoiengatik, gaurko euskal idazkeraz transkribatuko dira izen hauek, *c > k*, *z* eta *qu > k* aldaketak gauzatu, esaterako, baina *v* grafema gordez: *Klaudiano*, *Zizeron*, *Kintiliano*, *Vespasiano*...

Goi mailako ikerketetarako eta maiztasun urriko izenentzat bigarren bide bat ere uzten da zabalik, latindar jatorriko izenentarako latin nominatiboa onetsiz (*Flavius Josephus* adibidez) eta greziar jatorrikoentzat transkripzio taula bat proposatuz (*Alkaios, Bakkhylides, Kallimakhos, Themisthokles...* formak ere onesten dira honela).

Gomendio hauek baliagarri izango dira hemen bildu gabeko latindar aldaerarik duen Erdi Aroko edo Aro Berriko pertsonaien izen askorentzat ere, ez ordea egun ume jaio berriari ezar dakizkiokeen ponte-izenentzat.

## 2. Irizpideak

2.1. Izen egokituak erabiltzen direnean, esan bezala Hego Euskal Herriko literatur tradizio zaharrearabiat nagusi eta Ipar Euskal Herrikoan maiz erabiliak izan diren formak onartuko dira. Beraz, lehenengo latinezko nominatibo eta genitiboaren bukaerak eta gero euskarazko formaren bukaerak emanda, ondoko aldaketa hauek gauzatuko dira:

- us, -i* > -*o*. Adibidez, lat. *Catullus*, -*i*: eusk. *Katulo*
- a, -ae* > -*a*. Adibidez, lat. *Flora*, -*ae*: eusk. *Flora*
- ns, -ntis* > -*nte*. Adibidez, lat. *Constans*, -*ntis*: eusk. *Konstante*
- o, -onis* > -*on*. Adibidez, lat. *Varro*, -*onis*: eusk. *Varron*
- os, -otis* > -*ote*. Adibidez, lat. *Nepos*, -*otis*: eusk. *Nepote*
- er, -ri* > -*ro*. Adibidez, lat. *Alexander*, -*dri*: eusk. *Alexandro*

...

2.2. **v** grafema eta hitz hasierako **R**- errespetatu egingo dira. Adibidez, *Livia, Romulo*.

2.3. **n, l** eta **r** ondoko **z** eta **s** kontsonanteak, **tz** eta **ts** bilakatzen dira. Adibidez, *Pertseo, Zeltso, Nartziso, Zintzinato...*

2.4. Egokitzapen gabe jatorrizko grafiak euskal ahoskerarekin arazoak sortuko lituzkeenez, **tiu, tia** > **zio, zia** aldaketa gauzatuko da bokalaren ondoren (adibidez, *Horazio, Domiziano*) eta **tiu, tia** > **tzio, tzia**, aurretik **n, l, r** kontsonanteak direnean (adibidez, *Prudentzio, Martzial*).

2.5. *Litterae Ramenses* direlakoak **j** eta **v** idatziko dira kontsonante balioa dutenean. Adibidez, *Julia, Trajano, Servio* eta *Juvenal*.

2.6. Grafiari dagozkion ondoko aldaketa hauek ere gauzatuko dira:

**y** > **i**. Adibidez, *Sila*

**ae, oe** > **e**. Adibidez, *Zesar, Melibeo*

**ca, co, cu** > **ka, ko, ku**. Adibidez, *Kaligula, Korbulo, Lukulo*

**ce** (eta **cae, coe**), **ci** (eta **cy**) > **ze, zi** (eta **n, l, r** kontsonanteen ondoren **tze, tzi**). Adibidez, *Zeltso, Lizinio* eta *Martzelo, Kurtzio*

**qua** > **kua**. Adibidez, *Torkuato*

**qui, que** > **ki, ke**. Adibidez, *Tarkinio, Kerketulano*

**ch, ph, th, rh** > **k, f, t, r(r)**. Adibidez, *Karisio, Formion, Jugurta, Pirro*

**mm, nn, ll, pp, tt, ss, cc, cch** > **m, n, l, p, t, s, k, k**. Adibidez, *Memio, Aneo, Salustio, Apio, Atiko, Mesalina, Eklesiastiko, Grako*

**mp, mb** > **np, nb**. Adibidez, *Senpronia, Ambrosia*

Hitz hasierako <**S**- + kontsonantea> multzoa <**Es**- + kontsonantea>. Adibidez, *Espartako*

2.7. Greziar jatorriko pertsona-izenen euskal forma egokituak emateko, latinaren bitartekotzak ekarri digun forma hartuko da eta latin jatorriko izenentzat zehaztu diren egokitzapenak gauzatuko dira. Adibidez:

Θουκυδίδης > lat. *Thucydides* > eusk. *Tuzidides*

Γοργίας > lat. *Gorgias* > eusk. *Gorgias*

Ἀναξίμανδρος > lat. *Anaximander* > eusk. > *Anaximandro*

Ἀνακρέων > lat. *Anacreon* > eusk. *Anakreonte*

Ἀγαμέμνων > lat. *Agamemnon* > eusk. *Agamemnon*

Latinezko forma aski ezagunik ez denean, 3. puntuan adierazten den bezala jokatuko da, grekozko nominatiboaren transkripzioa eskainiz. Adibidez:

Ἑστία > eusk. *Hestia*

Μνησικλῆς > eusk. *Mnesikles*

3. Goi-mailako ikerketetan eta oso maiztasun urriko izenekin, latindar jatorriko izenen kasuan, latinezko nominatiboa har daiteke bere-berean, latinez duen forma eta grafiarekin (adibidez, *Verrius Flaccus*). Greziako izenen kasuan, grekozko nominatiboaren transkripzioa eskainiko da (adibidez, *Theophrastos*), ondoko taula honen arabera\*:

Grekozko grafia	Euskal grafia
A, α	a
Ἀ, ἄ	ha
B, β	b
Γ, γ	g
γγ, γκ, γξ, γχ	ng, nk, nx, nkh
Δ, δ	d
E, ε	e
Ἐ, ἐ	he
Z, ζ	z
H, η	e ( <i>i</i> beranduko helenismoetan)
Ἡ, ἦ	he
Θ, θ	th

I, ι	i
Ἰ, ἰ	hi
K, κ	k
L, λ	l
M, μ	m
N, ν	nn
Ξ, ξ	x
O, ο	o
Ο, ό	ho
Π, π	p
P, ρ	r ( <i>rh</i> hitz hasieran; hitz barruan: ρρ > <i>rrh</i> )
Σ, σ, ς	s
T, τ	t
Υ, υ	( <i>u</i> diptongoko bigarren elementua denean)
Ϛ, ϛ	hy
Φ, φ	ph
X, χ	kh
Ψ, ψ	ps
Ω, ω	o
Ω, ώ	ho

(\*) Grekozko azentuak, dieresia eta espiritu leuna ez dira transkribatuko euskaraz, ez eta letrapeko iota ere.

---

## 2- Arau osatua, eguneratua eta emendatua

Arauaren lehenengo bertsio hartan, irizpide xeheak emateaz gainera, pertsona-izen klasikoan zerrenda bat, aski luzea, eman zen, Antzinateko Greziako eta Erromako pertsona-izenez osatua. Hemezortzi urte igaro dira araua eman zenetik, eta gaur egun euskara batuan argitaratzen diren lanetan (eskola-liburuak, entziklopediak, hiztegiak, literatura, komunikabideak...), guztiz hedatuta dago arauan emandako eredia.

Bigarren bertsio honetan, osatu egin da orduko zerrenda hura, eta hartan agertzen ez diren zenbait izen erantsi. Arauaren lehen bertsioak 361 izen bildu zituen. Orain, 208 izen gehiago erantsi dira. Beraz, 569 pertsona-izenez osatutako izendegi greko-erromatar bat du arauaren bigarren bertsioak. Gainera, 1997ko zerrendan, gaztelaniazko eta frantsesezko ordainak bai baina ingelesezko ordainak ez ziren eman; orain, erantsi egin dira ingelesezko ordainak, kanpoko leku- eta pertsona-izenen gainerako arauetan egin ohi den bezala.

Antzinate klasikoan (K.a. 800 - K.o. 600), Greziako zibilizazioa eta Erromatar Inperioa izan ziren nagusi Mediterraneoaren inguruko eskualdeetan, baina izan ziren beste zibilizazio eta inperio garaikide garrantzitsu batzuk ere, hala Mediterraneoan (Fenizia, Kartago) nola Ekialdean (Baktrianako Erresuma grekoa, Seleukotar Inperioa, Partia, Sasandar Inperioa, Indiako Maurya Inperioa). Inperio horietako pertsona-izen ezagun batzuk ere bildu dira zerrendara (*Hanibal, Hasdrubal, Ashoka, Diodoto, Kosroes, Mitridates, Seleuko...* 30 dira, guztira; zerrendan **Latina /Grekoa** zutabea hutsik duten izenak dira).

Pertsona-izen grekoei dagokienez, hauek dira berrikuntzak:

- Izen bera duten pertsona bat baino gehiago dagoenean, ohikoa da nongoa den adieraztea, zehaztearren. Halakoak adibide gisa ematen dira zerrendan, izen orokorraren azpian. Adibidez, honela:

### **Agaton**

(ADIBIDEZ, *Agaton Atenaskoa, Agaton Mazedoniakoa*)

### **Apolodoro**

(ADIBIDEZ, *Apolodoro Atenaskoa, Apolodoro Karistokoa, Apolodoro Damaskokoa, Apolodoro Pergamokoa, Apolodoro Tarsokoa*).

Oharra: **Anakreonte, Antifonte** eta **Xenofonte** izenak arautu ziren 1997an. Hala ere, urtebete geroago, izen mitologikoak biltzen dituen 82. arauan, honela arautu ziren honako hauek:

**Belerofon** (*Belerofonte* ere onargarria da, bigarren mailan)

**Karon** (*Karonte* ere onargarria da, bigarren mailan)

**Laokoon** (*Laokoonte* ere onargarria da, bigarren mailan)

**Laomedon** (*Laomedonte* ere onargarria da, bigarren mailan).

Alegia, bi arauetako irizpideak ez zetozen bat. Horregatik, bi arauetako ereduak berdintzearen, bi formak onartu dira, baina forma laburrei lehentasuna emanda. Honela:

**Anakreon** (*Anakreonte* ere onargarria da, bigarren mailan)

**Antifon** (*Antifonte* ere onargarria da, bigarren mailan)

**Xenofon** (*Xenofonte* ere onargarria da, bigarren mailan).

Latindar izenei dagokienez, hauek dira berrikuntzak:

- Besteak beste, enperadore erromatar guztiak sistematikoki jaso dira (Ekialdeko Erromatar Inperioko enperadoreen kasuan, V. mendearen bukaera artekoak bakarrik jaso dira).

- Latinezko izenak osaturik eskaintzen dira. Adibidez, 1997ko zerrendan, *Neron* enperadorearen latinezko izena *Nero* ageri zen. Oraingo zerrendan, osaturik ematen da:

*Nero Claudius Cæsar Augustus Germanicus.*

Oharra: erromatarren nomenklaturan, pertsona-izenak zenbait osagai zituen (*praenomena*, *nomena* eta zenbait *cognomen*). Zerrendan, historiografian nagusi d(ir)en osagaia(k) baino ez d(ir)a ematen —erabili(k) edo adierazgarriena(k), alegia—. Adibidez, *Vitelio* enperadorearen izen osoa *Aulus Vitellius Germanicus* da, baina *Vitelio* da erabili(k)ena, eta hori besterik ez da ematen euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko zerrendetan (latinezko zerrendan, berriz, osorik ematen da). Gutxi batzuetan, osagai bat baino gehiago erabili ohi da, eta hala ematen dira, orduan, zerrendan. Adibidez, *Tito Livio*. Halakoetan, osagairik adierazgarriena lehena ez denean, ezkerrean ematen da adierazgarrien hori, eta, ondoren, koma batez bereizia, beste osagaia(k) ematen d(ir)a. Adibidez: *Galo*, *Treboniano* (hurrenkera horren bidez adierazi nahi da *Galo* soilik erabil daitekeela, edo osorik, *Treboniano Galo*, baina ez dela ohikoa *Treboniano* soilik erabiltzea).

**ANTZINATEKO LATINDAR ETA GREZIAR PERTSONA-IZENAK (ETA MEDITERRRANEOKO ETA EKIALDEKO BESTE INPERIO BATZUETAKOAK)**

<b>Euskara</b>	<b>Gaztelania</b>	<b>Frantsesa</b>	<b>Ingelesa</b>	<b>Latina / Grekoa</b>
<b>Adeimanto</b>	Adimanto	Adimantos	Adeimantus	Ἀδείμαντος
<b>Adrasto</b>	Adrasto	Adraste	Adrastus	Ἄδραστος
<b>Aezio</b>	Flavio Aecio	Aétius	Aetius	<i>Flavius Aetius</i>
<b>Afranio</b>	Lucio Afranio	Lucius Afranius	Lucius Afranius	<i>Lucius Afranius</i>
<b>Agamemnon</b>	Agamenón	Agamemnon	Agamemnon	Ἀγαμέμνων
<b>Agatokles</b>	Agatocles	Agathocle	Agathocles	Ἀγαθοκλῆς
<b>Agaton</b> (ADIBIDEZ: <b>Agaton Atenaskoa, Agaton Mazedoniakoa</b> )	Agatón	Agathon	Agathon	Ἀγάθων
<b>Agesilao</b>	Agesilao	Agésilas	Agesilaus	Ἀγησίλαος
<b>Agis</b>	Agis	Agis	Agis	Ἄγισ
<b>Agrikola</b>	Agrícola	Agricola	Agricola	<i>Gnaeus Julius Agricola</i>
<b>Agripa</b>	Agripa	Agrippa	Agrippa	<i>Marcus Vipsanius Agrippa</i>
<b>Agripina Gaztea</b>	Agripina la Menor	Agrippine la Jeune	Agrippina Minor / Agrippina the Younger	<i>Julia Agrippina</i>
<b>Agripina Zaharra</b>	Agripina la Mayor	Agrippine l'Aînée	Agrippina Major / Agrippina the Elder	<i>Vipsania Agrippina</i>
<b>Akeo</b> (ADIBIDEZ: <b>Akeo Eretriakoa, Akeo Sirakusakoa</b> )	Aqueo	Achaïos	Achaeus	Ἀχαιός
<b>Akiles Tazio</b>	Aquiles Tacio	Achille Tatius	Achilles Tatius	Ἀχιλλεύς Τάτιος
<b>Akron</b>	Acrón	Acron	Acron	Ἄκρων
<b>Alekto</b>	Alecto	Allectus	Allectus	<i>Allectus</i>
<b>Alexandro Handia</b>	Alejandro Magno	Alexandre le Grand	Alexander the Great	Ἀλέξανδρος ὁ Μέγας

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Alexandro I.a Mazedoniakoa</b>	Alejandro I de Mazedonia / Alejandro I Filohelena	Alexandre Ier de Macédoine	Alexander I of Macedon	Ἀλέξανδρος
<b>Alkman</b>	Alcmán	Alcman	Alcman	Ἄλκμάν
<b>Altzeo</b>	Alceo	Alcée	Alcaeus	Ἄλκαῖος
<b>Altzibiades</b>	Alcibíades	Alcibiade	Alcibiades	Ἄλκιβιάδης
<b>Altzino</b>	Alcino	Alcinoos	Alcinous	Ἄλκίνους
<b>Amiano Martzelino</b>	Amiano Marcelino	Ammien Marcellin	Ammianus Marcellinus	<i>Ammianus Marcellinus</i>
<b>Amintas</b>	Amintas	Amyntas	Amyntas	Ἀμύντας
<b>Anakarsis</b>	Anacarsis	Anacharsis	Anacharsis	Ἀνάχαρσις
<b>Anakreon<sup>1</sup></b>	Anacreonte	Anacréon	Anacreon	Ἀνακρέων
<b>Anastasio I.a</b>	Anastasio I	Anastase Ier	Anastasius I	<i>Flavius Anastasius Augustus</i>
<b>Anaxagoras</b>	Anaxágoras	Anaxagore	Anaxagoras	Ἀναξαγόρας
<b>Anaxarko</b>	Anaxarco	Anaxarque	Anaxarchus	Ἀνάξαρχος
<b>Anaxilao Larisakoa</b>	Anaxilao de Larisa	Anaxilaos de Larissa	Anaxilaus of Larissa	<i>Anaxilaus</i>
<b>Anaximandro</b>	Anaximandro	Anaximandre	Anaximander	Ἀναξιμανδρος
<b>Anaximenes</b>	Anaxímenes	Anaximène	Anaximenes	Ἀναξιμένης
<b>Androkles</b>	Androcles	Androclès	Androcles	<i>Androclus</i>
<b>Androniko Rodaskoa</b>	Andrónico de Rodas	Andronicos de Rhodes	Andronicus of Rhodes	Ἀνδρόνικος
<b>Androniko, Livio</b>	Andrónico, Livio	Andronicus, Livius	Andronicus, Livius	<i>Lucius Livius Andronicus</i>
<b>Aneo Sereno</b>	Aneo Sereno	Annaeus Serenus	Annaeus Serenus	<i>Annaeus Serenus</i>
<b>Anko Martzio</b>	Anco Marcio	Ancus Marcius	Ancus Marcius	<i>Ancus Marcius</i>
<b>Antemio</b>	Antemio	Anthémios	Anthemius	<i>Flavius Procopius Anthemius</i>
<b>Antenor</b>	Antenor	Anténor	Antenor	Ἀντήνωρ
<b>Antifanes</b>	Antífanos	Antiphane	Antiphanes	Ἀντιφάνης
<b>Antifon<sup>2</sup></b>	Antifonte edo Antifón	Antiphon	Antiphon	Ἀντιφῶν
<b>Antigona Epirokoa</b>	Antígona de Epiro	Antigoné d'Épire	Antigone of Epirus	Ἀντιγόνη

<sup>1</sup> *Anakreonte* ere onargarria da, bigarren mailan.

<sup>2</sup> *Antifonte* ere onargarria da, bigarren mailan.



Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Antigono</b> (ADIBIDEZ: <b>Antigono Karistokoa, Antigono III.a Mazedoniakoa</b> )	Antígono	Antigone	Antigonus	Ἀντίγονος
<b>Antigono II.a Gonatas</b>	Antígono II Gónatas	Antigone II Gonatas	Antigonus II Gonatas	Ἀντίγονος Β΄ Γονατᾶς
<b>Antimako</b>	Antímaco	Antimaque	Antimachus	Ἀντίμαχος
<b>Antinoo</b>	Antínoo edo Antinoo	Antinoüs	Antinous	Ἀντίνοος
<b>Antioko</b> (ADIBIDEZ: <b>Antioko Axkelongoa, Antioko Atenaskoa, Antioko Sirakusakoa</b> )	Antíoco	Antiochos	Antiochus	Ἀντίοχος
<b>Antioko I.a Soter</b>	Antíoco I Sóter	Antiochos Ier Sôter	Antiochus I Soter	
<b>Antioko II.a Teos</b>	Antíoco II Teos	Antiochos II Théos	Antiochus II Theos	
<b>Antipatro edo Antipater</b> (ADIBIDEZ: <b>Antipater Zirenekoa, Antipater Tarsokoa, Antipater II.a Mazedoniakoa</b> )	Antípatro	Antipater	Antipater	Ἀντίπατρος
<b>Antistenes</b>	Antístenes	Antisthène	Antisthenes	Ἀντισθένης
<b>Antonino Pio</b>	Antonino Pío	Antonin le Pieux	Antoninus Pius	<i>Titus Fulvius Aelius Hadrianus Antoninus Augustus Pius</i>
<b>Apeles</b>	Apeles	Apelle / Apeles / Apèles / Apelles	Apelles	Ἀπελλῆς
<b>Apiano</b>	Apiano	Appien	Appian	<i>Appianus</i>
<b>Apio Klaudio Itsua</b>	Apio Claudio Ceco	Appius Claudius Caecus	Appius Claudius Caecus	<i>Appius Claudius Caecus</i>
<b>Apolodoro</b> (ADIBIDEZ: <b>Apolodoro Atenaskoa, Apolodoro Karistokoa, Apolodoro Damaskokoa, Apolodoro Pergamokoa, Apolodoro Tarsokoa</b> )	Apolodoro	Apollodore	Apollodorus	Ἀπολλόδωρος

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Apolonio</b> (ADIBIDEZ: <b>Apolonio Atenaskoa, Apolonio Tianakoa, Apolonio Tralleskoa</b> )	Apolonio	Apollonios	Apollonius	Ἀπολλώνιος
<b>Apolonio Diskolo</b>	Apolonio Díscolo	Apollonius / Apollonios Dyscole	Apollonius Dyscolus	Ἀπολλώνιος ὁ δύσκολος
<b>Apuleio</b>	Apuleyo	Apulée	Apulieus	<i>Lucius Apuleius Madaurensis</i>
<b>Arato</b>	Arato	Aratus	Aratus	Ἄρατος
<b>Arbogasto</b>	Arbogasto / Arbogastes	Arbogast	Arbogastes / Arbogast	<i>Flavius Arbogastes</i>
<b>Ardaxir</b>	Ardacher / Ardashir	Ardachîr / Ardéchir / Ardachêr	Ardashir / Ardeshir	
<b>Ariarates</b>	Ariarates	Ariarathe	Ariarathes	
<b>Ario</b>	Arrio	Arius	Arius	<i>Arius</i>
<b>Arion</b>	Arión	Arion	Arion	Ἄριων
<b>Aristarko Samoskoa</b>	Aristarco de Samos	Aristarque de Samos	Aristarchus of Samos	Ἀρίσταρχος
<b>Aristides</b>	Aristides	Aristide	Aristides	Ἄριστείδης
<b>Aristipo</b>	Aristipo	Aristippe	Aristippus	Ἄριστιππος
<b>Aristobulo Kasandreia</b>	Aristóbulo de Casandrea	Aristobule de Cassandréia	Aristobulus of Cassandreia	Ἀριστόβουλος
<b>Aristofanes</b>	Aristófanés	Aristophane	Aristophanes	Ἄριστοφάνης
<b>Aristoteles</b>	Aristóteles	Aristote	Aristotle	Ἄριστοτέλης
<b>Arkadio</b>	Arcadio	Arcadius	Arcadius	<i>Flavius Arcadius Augustus</i>
<b>Arkelao</b> (ADIBIDEZ: <b>Arkelao Espartakoa, Arkelao I.a Mazedoniakoa</b> )	Arkelao	Archélaos	Archelaus	Ἀρχέλαος
<b>Arkias</b>	Arquias	Archias	Archias	Ἀρχίας
<b>Arkidamo</b>	Arquídamo	Archidamos	Archidamus	Ἀρχίδαμος
<b>Arkiloko</b>	Arquíloco	Archiloque	Archilochus	Ἄρχιλοχος
<b>Arkimedes</b>	Arquímedes	Archimède	Archimedes	Ἄρχιμήδης
<b>Arnobio</b>	Arnobio	Arnobe	Arnobius	<i>Arnobius</i>
<b>Arriano</b>	Arriano	Arrien	Arrian	Ἄρριανός

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Arriano Nikomediakoa</b>	Arriano de Nicomedia	Arrien de Nicomédie	Arrian of Nicomedia	<i>Lucius Flavius Arrianus</i>
<b>Artsazes I.a Partiakoa</b>	Arsaces I de Partia	Arsace Ier	Arsaces I of Partia	
<b>Artsinoe</b> (ADIBIDEZ: <b>Artsinoe</b> <b>Mazedoniakoa,</b> <b>Artsinoe I.a)</b>	Arsínoe	Arsinoé	Arsinoe	Ἀρσινόη
<b>Artzesilao</b>	Arcesilao	Arcésilas	Arcesilaus	Ἄρκεσίλαος
<b>Ashoka</b>	Ashoka / Asoka	Ashoka / Açoka	Ashoka	
<b>Asklepiades</b> (ADIBIDEZ: <b>Asklepiades</b> <b>Bitiniakoa,</b> <b>Asklepiades</b> <b>Samoskoa)</b>	Asclepiades	Asclépiade	Asclepiades	Ἄσκληπιάδης
<b>Aspasia</b>	Aspasia	Aspasie	Aspasia	Ἄσπασία
<b>Atalo</b>	Atalo	Attale	Attalus	Ἄτταλος
<b>Atenagoras</b> (ADIBIDEZ: <b>Atenagoras</b> <b>Atenaskoa,</b> <b>Atenagoras Efesokoa)</b>	Atenágoras	Athénagore	Athenagoras	Ἄθηναγόρας
<b>Ateneo</b>	Ateneo	Athénée	Athenaeus	Ἀθήναιος
<b>Ateneo Naukratiskoa</b>	Ateneo de Naucratis	Athénée de Naucratis	Athenaeus of Naucratis	<i>Athenaeus</i>
<b>Atiko</b>	Ático	Atticus	Atticus	<i>Titus Pomponius Atticus</i>
<b>Augusto, Oktavio</b>	Augusto, Octavio	Auguste, Octave	Augustus, Octavius	<i>Gaius Julius Divi Filius Caesar Octavianus Augustus (jaiotzez: Gaius Octavius)</i>
<b>Aulo Gelio</b>	Aulo Gelio	Aulu-Gelle	Aulus Gellius	<i>Aulus Gellius</i>
<b>Aureliano</b>	Aureliano	Aurélien	Aurelian	<i>Lucius Domitius Aurelianus Augustus</i>
<b>Aureolo</b>	Aureolo	Auréolus	Aureolus	<i>Manius Acilius Aureolus</i>
<b>Ausonio</b>	Ausonio	Ausone	Ausonius	<i>Decimius Magnus Ausonius</i>
<b>Avidio Kasio</b>	Avidio Casio	Avidius Cassius	Avidius Cassius	<i>Gaius Avidius Cassius</i>
<b>Avieno</b>	Avieno	Aviénus	Avienus	<i>Rufus Festus Avienus</i>
<b>Avito</b>	Avito	Avitus	Avitus	<i>Marcus Maecilius Flavius Eparchius Avitus</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Baal</b>	Baal	Baal	Baal	
<b>Babrio</b>	Babrio	Babrius edo Babrios	Babrius	Βάβριος
<b>Bahram</b>	Bahram	Vahram / Bahram	Bahram	
<b>Bakilides</b>	Baquílides	Bacchylide	Bacchylides	Βακχυλίδης
<b>Balbino</b>	Balbino	Balbin	Balbinus	<i>Decimus Caelius Calvinus Balbinus</i>
<b>Basilisko</b>	Basilisco	Basiliscus	Basiliscus	<i>Flavius Basiliscus Augustus</i>
<b>Belisario</b>	Belisario	Bélisaire	Belisarius	<i>Flavius Belisarius</i>
<b>Berenize</b>	Berenice	Bérénice	Berenice	Βερενίκη
<b>Bomilkar</b>	Bomílcar	Bomilcar	Bomilcar	
<b>Bonoso</b>	Bonoso	Bonusus	Bonusus	<i>Gallus Quintus Bonusus</i>
<b>Boudika</b>	Boudica / Boadicea	Boudicca / Boadicée / Boadicéa	Boudica / Boudicca / Boadicea	<i>Boudicca</i>
<b>Brasidas</b>	Brásidas	Brasidas	Brasidas	Βρασίδας
<b>Britaniko</b>	Británico	Britannicus	Britannicus	<i>Tiberius Claudius Caesar Britannicus</i>
<b>Bruto, Marko Junio</b>	Bruto, Marco Junio	Brutus, Marcus Junius	Brutus, Marcus Junius	<i>Marcus Junius Brutus</i>
<b>Burro, Sesto Afranio</b>	Burro, Sexto Afranio	Burrus, Sextus Afranius	Burrus, Sextus Afranius	<i>Burrus, Sextus Afranius</i>
<b>Chandragupta Maurya</b>	Chandragupta Mauria/Maurya	Chandragupta Maurya	Chandragupta Maurya	
<b>Damokles</b>	Damocles	Damoclès	Damocles	Δαμοκλής
<b>Demades</b>	Démades	Démade	Demades	Δημάδης
<b>Demetrio</b> (ADIBIDEZ: <b>Demetrio Eterra, Demetrio I.a Mazedoniakoa</b> )	Demetrio	Démétrios	Demetrius	Δημήτριος
<b>Demetrio</b>	Demetrio	Démétrios	Demetrius	
<b>Demokrito</b>	Demócrito	Démocrite	Democritus	Δημόκριτος
<b>Demostenes</b>	Demóstenes	Démosthène	Demosthenes	Δημοσθένης
<b>Dezebalo</b>	Decéballo	Décébale	Decebalus	<i>Decebalus</i>
<b>Dezio</b>	Decio	Dèce	Decius	<i>Gaius Messius Quintus Decius Augustus</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Diadumeniano</b>	Diadumeniano	Diaduménien	Diadumenian	<i>Marcus Opellius Antoninus Diadumenianus Augustus</i>
<b>Diagoras</b> (ADIBIDEZ: <b>Diagoras Meloskoa, Diagoras Rodaskoa</b> )	Diágoras	Diagoras	Diagoras	Διαγόρας
<b>Didio Juliano</b>	Didio Juliano	Didius Julianus	Didius Julianus	<i>Marcus Didius Severus Julianus Augustus</i>
<b>Diodoro</b>	Diodoro	Diodore	Diodorus	Διόδωρος
<b>Diodoto I.a Soter</b>	Diodoto I	Diodote Ier Soter	Diodotus I Soter	
<b>Diofanto</b> <sup>3</sup>	Diofanto	Diophante	Diophantus	Διόφαντος
<b>Diogenes</b> (ADIBIDEZ: <b>Diogenes Apoloniakoa, Diogenes Babiloniakoa, Diogenes Bizantziakoa, Diogenes Sinopekoa, Diogenes Oinoandakoa</b> )	Diógenes	Diogène	Diogenes	Διογένης
<b>Diokleziano</b>	Diocleciano	Dioclétien	Diocletian	<i>Gaius Aurelius Valerius Diocletianus Augustus</i>
<b>Dion</b>	Dion	Dion	Dion	Δίων
<b>Dionisio Halikarnasokoa</b>	Dionisio de Halicarnaso	Denys d'Halicarnasse	Dionysius of Halicarnassus	Διονύσιος
<b>Domiziano</b>	Domiciano	Domitien	Domitian	<i>Titus Flavius Caesar Domitianus Augustus</i>
<b>Domizio Alexandro</b>	Domicio Alejandro	Domitius Alexander	Domitius Alexander	<i>Lucius Domitius Alexander</i>
<b>Domizio Domiziano</b>	Domicio Domiciano	Domitius Domitianus	Domitius Domitianus	<i>Lucius Domitius Domitianus</i>
<b>Donato Handia</b>	Donato Magno	Donatus Magnus / Donat le Grand	Donatus Magnus	<i>Donatus Magnus</i>
<b>Drakon</b>	Dracón	Dracon	Draco	Δράκων

<sup>3</sup> Arauaren 1997ko bertsioan, **Diofantos** ageri zen, baina akats bat zen, eta zuzendu egin da bigarren bertsioan.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Druso Germaniko</b> edo <b>Druso Zaharra</b>	Druso, Nerón Claudio / Druso el Mayor	Drusus, Nero Claudius	Drusus the Elder / Drusus, Nero Claudius	<i>Nero Claudius Drusus Germanicus</i>
<b>Druso, Marko Livio</b>	Druso, Marco Livio	Drusus, Marcus Livius	Drusus, Marcus Livius	<i>Marcus Livius Drusus</i>
<b>Efialtes</b>	Efialtes	Éphialtès	Ephialtes	Ἐφιάλτης
<b>Elagabalo</b> edo <b>Heliogabalo</b>	Heliogábalo / Elagábalo	Héliogabale / Élagabal	Elagabalus / Heliogabalus	<i>Elagabalus (Marcus Aurelius Antoninus Augustus)</i>
<b>Elisa</b>	Elisa	Elyssa / Elissa	Elissa	Ἐλισσα
<b>Elpinize</b>	Elpinice	Elpinicé	Elpinice	Ἐλπινίκη
<b>Emiliano</b>	Emiliano	Émilien / Æmilien	Aemilian / Aemilianus	<i>Marcus Aemilius Aemilianus Augustus</i>
<b>Eneas Taktikaria</b>	Eneas el Táctico	Énée le Tacticien	Aeneas Tacticus	Αἰνείας ο Τακτικός
<b>Enio, Kinto</b>	Ennio, Quinto	Ennius, Quintus	Ennius, Quintus	<i>Quintus Ennius</i>
<b>Enpedokles</b>	Empédocles	Empédocle	Empedocles	Ἐμπεδοκλής
<b>Epaminondas</b>	Epaminondas	Épaminondas	Epaminondas	Ἐπαμεινώνδας
<b>Epikarmo</b>	Epicarmo	Épicharme	Ericharmus	Ἐπίχαρμος
<b>Epikteto</b>	Epicteto	Épictète	Epictetus	Ἐπίκτητος
<b>Epikuro</b>	Epicuro	Épicure	Epicurus	Ἐπίκουρος
<b>Eratostenes</b>	Eratóstenes	Ératosthène	Eratosthenes	Ἐρατοσθένης
<b>Eskilo</b>	Esquilo	Eschyle	Aeschylus	Αἰσχύλος
<b>Eskines</b>	Esquines	Eschine	Aeschines	Αἰσχίνης
<b>Eskopas</b>	Escopas	Scopas	Scopas	Σκόπας
<b>Esopo</b>	Esopo	Ésope	Aesop	Αἴσωπος
<b>Espartako</b>	Espartaco	Spartacus	Spartacus	<i>Spartacus</i>
<b>Estesikoro</b>	Estesícoro	Stésichore	Stesichorus	Stēsikhōros
<b>Estilikon</b>	Estilicón	Stilicon	Stilicho / Stilico	<i>Flavius Stilicho</i>
<b>Estrabon</b>	Estrabón	Strabon	Strabo	Στράβων
<b>Estraton</b> (ADIBIDEZ: <b>Estraton Lampsakokoa, Estraton Sardeskoa</b> )	Estratón	Straton	Strato	Στράτων
<b>Eszipion Afrikarra</b>	Escipión	Scipion l'Africain	Scipio Africanus / Scipio the African	<i>Publius Cornelius Scipio Africanus</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Eudoxo</b> (ADIBIDEZ: <b>Eudoxo Zizikokoa, Eudoxo Knidokoa</b> )	Eudoxo	Eudoxe	Eudoxus	Ευδοξος
<b>Eufronio</b>	Eufronio	Euphronius / Euphronios	Euphronius / Euphronios	Εὐφρόνιος
<b>Eugenio</b>	Eugenio	Eugène	Eugenius	<i>Flavius Eugenius</i>
<b>Euklides</b>	Euclides	Euclide	Euclid	Εὐκλείδης
<b>Eukratides I.a</b>	Eucrátides	Eucratide	Eucratides	
<b>Eumenes</b> (ADIBIDEZ: <b>Eumenes Kardiakoa, Eumenes I.a</b> )	Eumenes	Eumène	Eumenes	Ευμένης
<b>Euripides</b>	Eurípides	Euripide	Euripides	Ευριπίδης
<b>Eutidemo</b>	Eutidemo	Euthydème	Euthydemus	
<b>Evaristo</b>	Evaristo	Évariste	Evaristus	<i>Evaristus</i>
<b>Fabio</b>	Fabio	Fabius	Fabius	<i>Fabius</i>
<b>Fabrizio</b>	Fabricio	Fabricius	Fabricius	<i>Fabricius</i>
<b>Falaris</b>	Falaris	Phalaris	Phalaris	Φάλαρις
<b>Farnazes I.a</b>	Farnaces I	Pharnace Ier	Pharnaces	Φαρνάκης
<b>Faustina Gaztea</b>	Faustina la Menor	Faustine la Jeune	Faustina the Younger	<i>Annia Galeria Faustina Minor</i>
<b>Faustina Zaharra</b>	Faustina la Mayor	Faustine l'Ancienne	Faustina the Elder	<i>Annia Galeria Faustina Major</i>
<b>Fedon</b>	Fedón	Phédon	Phaedo	Φαίδων
<b>Fedro</b>	Fedro	Phèdre	Phaedrus	<i>Caius Iulius Phaedrus</i>
<b>Fidias</b>	Fidias	Phidias	Phidias	Φειδίας
<b>Fidipides edo Filipides</b>	Filípides / Fidípides	Phidippidès / Philippidès	Pheidippides	Φιλίππιδης edo Φειδιππίδης
<b>Filemon</b>	Filemón	Philémon	Philemon	Φιλήμων
<b>Filipo</b>	Filipo	Philippe	Philip	Φίλιππος
<b>Filipo Arabiarra</b>	Filipo el Árabe	Philippe l'Arabe	Philip the Arab	<i>Marcus Julius Philippus Augustus</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Filon</b> (ADIBIDEZ: <b>Filon Alexandriakoa, Filon Atenaskoa, Filon Bizantziokoa, Filon Larisakoa</b> )	Filón	Philon	Philo	Φίλων
<b>Filopemen</b>	Filopemen	Philopæmen	Philopoemen	Φιλοποίμην
<b>Filostrato</b>	Filóstrato	Philostrate	Philostratus	Φιλόστρατος
<b>Flaminio</b>	Flaminio	Flaminius	Flaminius	<i>Flaminius</i>
<b>Floriano</b>	Floriano	Florien	Florian / Florianus	<i>Marcus Annius Florianus Augustus</i>
<b>Floro</b>	Floro	Florus	Florus	<i>Publius Annius Florus</i>
<b>Formion</b>	Formiόν	Phormion	Phormio	Φορμίων
<b>Fozion</b>	Foción	Phocion	Phocion	Φωκίων
<b>Fraates</b>	Fraates	Phraatès	Phraates of Parthia	
<b>Friniko</b>	Frínico	Phrynichos	Phrynichus	Φρόνιχος
<b>Ftia</b>	Ftía	Phthia	Phthia	Φθια
<b>Gaio</b>	Gayo	Gaius	Gaius	<i>Gaius</i>
<b>Galba</b>	Galba	Galba	Galba	<i>Lucius Livius Ocella Servius Sulpicius Galba</i>
<b>Galeno</b>	Galeno	Galien	Galen	Γαληνός
<b>Galerio</b>	Galerio	Galère	Galerius	<i>Gaius Galerius Valerius Maximianus Augustus</i>
<b>Galieno</b>	Galieno	Gallien	Gallienus	<i>Publius Licinius Egnatius Gallienus Augustus</i>
<b>Galo, Treboniano</b>	Galo, Treboniano	Galle, Trébonien	Gallus, Trebonianus	<i>Gaius Vibius Afinius Trebonianus Gallus Augustus</i>
<b>Germaniko</b>	Germánico	Germanicus	Germanicus	<i>Germanicus Julius Caesar</i>
<b>Geta</b>	Geta	Geta	Geta	<i>Publius Septimius Geta Augustus</i>
<b>Glaukon</b>	Glaucón	Glaucón	Glaucón	Γλαύκων
<b>Glizerio</b>	Glicerio	Glycère / Glycérius	Glycerius	<i>Glycerius</i>



Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Gordiano</b>	Gordiano	Gordien	Gordian	<i>Marcus Antonius Gordianus Sempronianus Romanus Africanus</i>
<b>Gorgias</b>	Gorgias	Gorgias	Gorgias	Γοργίας
<b>Grakotarrak (Tiberio Senpronio Grako; Kaio Senpronio Grako)</b>	Graco, los (Cayo Sempronio Graco; Tiberio Sempronio Graco)	Gracques, les (Tiberius Sempronius Gracchus; Caius Sempronius Gracchus)	Gracchi / Gracchi brothers (Tiberius Sempronius Gracchus; Caius Sempronius Gracchus)	<i>Gaius Sempronius Gracchus</i>
<b>Graziano</b>	Graciano / Graciano el Joven	Gratien	Gratian	<i>Flavius Gratianus Augustus</i>
<b>Hadriano</b>	Adriano	Hadrien	Hadrian	<i>Publius Aelius Hadrianus Augustus</i>
<b>Hamilkar Barka</b>	Amílcar Barca	Hamilcar Barca	Hamilcar Barca	
<b>Hanibal</b>	Aníbal	Hannibal / Annibal	Hannibal	
<b>Hannon</b>	Hannón / Hanón	Hannon	Hanno	
<b>Hasdrubal Barka</b>	Asdrúbal Barca	Hasdrubal Barca	Hasdrubal Barca	
<b>Hekateo (ADIBIDEZ: Hekateo Abderakoa, Hekateo Miletokoa)</b>	Hecateo	Hécátée	Hecataeus	Ἑκαταῖος
<b>Heliodoro</b>	Heliodoro	Héliodore	Heliodorus	Ἡλιόδωρος
<b>Herakles</b>	Heracles	Héraclès	Heracles	Ἡρακλῆς
<b>Heraklides</b>	Heráclides	Héraclide	Heraclides	Ἡρακλείδης
<b>Heraklito</b>	Heráclito	Héraclite	Heraclitus	Ἡράκλειτος
<b>Herenio Etruriarra</b>	Herenio Etrusco	Herennius Etruscus	Herennius Etruscus	<i>Quintus Herennius Etruscus Messius Decius Augustus</i>
<b>Hermogenes</b>	Hermógenes	Hermogène	Hermogenes	Ἑρμογένης
<b>Hermokrates</b>	Hermócrates	Hermocrate	Hermocrates	Ἑρμοκράτης
<b>Herodoto</b>	Heródoto	Hérodote	Herodotus	Ἡρόδοτος
<b>Heron</b>	Herón	Héron	Hero	Ἡρων
<b>Herostrato</b>	Eróstrato	Érostrate	Herostratus	Ἡρόστρατος
<b>Hesiodo</b>	Hesíodo	Hésiode	Hesiod	Ἡσίοδος
<b>Hieron</b>	Hierón	Hiéron	Hiero	Ἱέρων

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Hieronimo</b> edo <b>Jerónimo</b> (ADIBIDEZ: <b>Hieronimo</b> edo <b>Jerónimo</b> <b>Kardiakoa</b> , <b>Hieronimo</b> edo <b>Jerónimo</b> <b>Sirakusakoa</b> )	Hierónimo / Jerónimo	Hiéronyme / Jérôme	Hieronymus	Ἱερώνυμος
<b>Himilkon</b>	Himilcón	Himilcon	Himilco	
<b>Hiparko</b> (ADIBIDEZ: <b>Hiparko</b> <b>Atenaskoa</b> , <b>Hiparko</b> <b>Samoskoa</b> )	Hiparco	Hipparque	Hipparchus / Hipparch	Ἱππάρχος
<b>Hipatia</b>	Hipatia	Hypatie	Hypatia	Ἵπατία
<b>Hiperides</b>	Hipérides	Hypéride	Hypereides / Hyperides	Ἵπερείδης
<b>Hipias</b>	Hipias	Hippias	Hippias	Ἱππίας
<b>Hipokrates</b> (ADIBIDEZ: <b>Hipokrates</b> <b>Kosekoa</b> , <b>Hipokrates</b> <b>Kioskoa</b> )	Hipócrates	Hippocrate	Hippocrates	Ἱπποκράτης
<b>Homero</b>	Homero	Homère	Homer	Ὅμηρος
<b>Honorio</b>	Honorio	Honorius	Honorius	<i>Flavius Honorius Augustus</i>
<b>Horazio</b>	Horacio	Horace	Horace	<i>Quintus Horatius Flaccus</i>
<b>Hormizd</b>	Ormuz	Hormizd	Hormizd	
<b>Hortensio, Kinto</b>	Hortensio, Quinto	Hortensius, Quintus	Hortensius, Quintus	<i>Quintus Hortensius Hortalus</i>
<b>Hostiliano</b>	Hostiliano	Hostilien	Hostilian	<i>Gaius Valens Hostilianus Messius Quintus Augustus</i>
<b>Ifikrates</b>	Ificrates	Iphicrate	Iphicrates	Ἴφικράτης
<b>Ingenuo</b>	Ingenuo	Ingenuus	Ingenuus	<i>Decimus Lælius Ingenuus</i>
<b>Isokrates</b>	Isócrates	Isocrate	Isocrates	Ἴσοκράτης
<b>Itobaal</b>	Itobaal	Ithobaal	Ithobaal	
<b>Jason Fereskoa</b>	Jasón de Feres	Jason de Phères	Jason of Pherae	Ἰάσων των Φερών
<b>Joanes</b>	Juan	Jean	Joannes	<i>Ioannes</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Jotapiano</b>	Jotapiano	Jotapianus	Jotapianus / Jotapian	<i>Iotapianus</i>
<b>Joviano</b>	Joviano	Jovien	Jovian	<i>Flavius Jovianus Augustus</i>
<b>Jovino</b>	Jovino	Jovin	Jovinus	<i>Iovinus</i>
<b>Juba</b>	Juba	Juba	Juba	<i>Iuba</i>
<b>Jugurta</b>	Yugurta / Jugurta	Jugurtha	Jugurtha	
<b>Julia Domna</b>	Julia Domna	Julia Domna	Julia Domna	<i>Iulia Domna</i>
<b>Julia Mesa</b>	Julia Mesa	Julia Maesa	Julia Maesa	<i>Iulia Maesa</i>
<b>Juliano Apostata</b> edo <b>Juliano II.a</b>	Juliano el Apóstata / Juliano II.a	Julien l'Apostat / Julien II	Julian the Apostate / Julian / Julian the Philosopher	<i>Flavius Claudius Julianus Augustus</i>
<b>Julio Nepote</b>	Julio Nepote	Julius Nepos	Julius Nepos	<i>Flavius Iulius Nepos</i>
<b>Justino</b>	Justino	Justin	Justin	<i>Marcus Junianus Justinus</i>
<b>Juvenal</b>	Juvenal	Juvénal	Juvenal	<i>Decimus Iunius Iuvenalis</i>
<b>Kaio Kasio Longino</b>	Cayo Casio Longino	Gaius Cassius Longinus	Gaius Cassius Longinus	<i>Gaius Cassius Longinus</i>
<b>Kaligula</b>	Calígula	Caligula	Caligula	<i>Caligulus (Gaius Julius Caesar Augustus Germanicus)</i>
<b>Kalikrates</b>	Calícrates	Callicratès	Callicrates	Καλλικράτης
<b>Kalimako</b>	Calímaco	Callimaque	Callimachus	Καλλίμαχος
<b>Kalistenes</b>	Calístenes	Callisthène	Callisthenes	Καλλισθένης
<b>Kaltzidio</b>	Calcidio	Chalcidius / Calcidius	Chalcidius	<i>Calcidius</i>
<b>Kamilo</b>	Camilo	Camille	Camillus	<i>Marcus Furius Camillus</i>
<b>Karakala</b>	Caracalla	Caracalla	Caracalla	<i>Marcus Aurelius Severus Antoninus Augustus</i>
<b>Karausio</b>	Carausio	Carausius	Carausius	<i>Marcus Aurelius Mausaeus Valerius Carausius</i>
<b>Kares</b>	Cares	Charès	Chares	Χάρης
<b>Karino</b>	Carino	Carin	Carinus	<i>Marcus Aurelius Carinus Augustus</i>
<b>Karneades</b>	Carnéades	Carnéade	Carneades	Καρνεάδης

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Karo</b>	Caro	Carus	Carus	<i>Marcus Aurelius Carus Augustus</i>
<b>Kasandro</b>	Casandro	Cassandre	Cassander	Κάσσανδρος
<b>Kasio Kerea</b>	Casio Querea	Cassius Chaerea	Cassius Chaerea	<i>Cassius Chaerea</i>
<b>Kasiodoro</b>	Casiodoro	Cassiodore	Cassiodorus	<i>Magnus Aurelius Cassiodorus Senator</i>
<b>Katilina</b>	Catilina	Catilina	Catiline	<i>Lucius Sergius Catilina</i>
<b>Katon Gaztea</b> edo <b>Katon Utikakoa</b>	Catón el Joven / Catón de Útica	Caton le Jeune / Caton d'Utique	Cato the Younger	<i>Marcus Porcius Cato Uticensis</i>
<b>Katon Zaharra</b> edo <b>Katon Zentsorea</b>	Catón el Viejo / Catón el Censor	Caton l'Ancien / Caton le Censeur	Cato the Elder / Cato the Censor	<i>Marcus Porcius Cato / Cato Maior / Cato Censorius</i>
<b>Katulo</b>	Catulo	Catulle	Catullus	<i>Gaius Valerius Catullus</i>
<b>Kieto</b>	Quieto	Quiétus	Quietus	<i>Titus Fulvius Iunius Quietus</i>
<b>Kilon</b>	Quilón	Chilon	Chilon	Χίλων
<b>Kintiliano</b>	Quintiliano	Quintilien	Quintilian	<i>Marcus Fabius Quintilianus</i>
<b>Kintilo</b>	Quintilo	Quintillus	Quintillus	<i>Marcus Aurelius Claudius Quintillus Augustus</i>
<b>Kinto Kurtzio</b>	Quinto Curcio	Quinte-Curce	Quintus Curtius	<i>Quintus Curtius Rufus</i>
<b>Klaudiano</b>	Claudiano	Claudien	Claudian	<i>Claudius Claudianus</i>
<b>Klaudio</b>	Claudio	Claude	Claudius	<i>Tiberius Claudius Caesar Augustus Germanicus</i>
<b>Klaudio Gotikoa</b> edo <b>Klaudio II.a</b>	Claudio Gótico / Claudio II	Claude le Gothique / Claude II	Claudius Gothicus / Claudius II	<i>Marcus Aurelius Valerius Claudius Augustus</i>
<b>Kleitias</b> edo <b>Klitias</b>	Clitias	Kleitias edo Clitias	Kleitias edo Klitias	Κλειτίας
<b>Kleobulo</b>	Cleóbulo	Cléobule	Cleobulus	Κλεόβουλος
<b>Kleomenes</b>	Cleómenes	Cléomène	Cleomenes	Κλεομένης
<b>Klistenes</b>	Clístenes	Clisthène	Cleisthenes / Clisthenes	Κλεισθένης
<b>Klodio Albino</b>	Clodio Albino	Clodius Albinus	Clodius Albinus	<i>Decimus Clodius Septimius Albinus Augustus</i>
<b>Kolumela</b>	Columela	Columelle	Columella	<i>Lucius Iunius Moderatus Columella</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Komodo</b>	Cómodo	Commode	Commodus	<i>Marcus Aurelius Commodus Antoninus Augustus</i>
<b>Konon</b>	Conón	Conon	Conon	Κόνων
<b>Konstante</b>	Constante	Constant	Constans	<i>Flavius Julius Constans Augustus</i>
<b>Konstantino I.a edo Konstantino Handia</b>	Constantino I, Constantino el Grande	Constantin I <sup>er</sup>	Constantine I / Constantine the Great	<i>Flavius Valerius Aurelius Constantinus Augustus</i>
<b>Konstantzio Kloro</b>	Constancio Cloro / Constancio I	Constance Chlore / Constance I <sup>er</sup>	Constantius Chlorus / Constantius I	<i>Marcus Flavius Valerius Constantius Herculius Augustus</i>
<b>Korbulo</b>	Corbulón	Corbulon	Corbulo	<i>Gnaeus Domitius Corbulo</i>
<b>Koriolano</b>	Coriolano	Coriolan	Coriolan / Coriolanus	<i>Caius Marcius Coriolanus</i>
<b>Kornelia</b>	Cornelia	Cornelia	Cornelia	<i>Cornelia Scipionis Africana</i>
<b>Kornelio Nepote</b>	Cornelio Nepote	Cornélius Népos	Cornelius Nepos	<i>Cornelius Nepos</i>
<b>Kornelio Severo</b>	Cornelio Severo	Cornelius Severus	Cornelius Severus	<i>Publius Cornelius Severus</i>
<b>Kosroes</b>	Cosroes	Khosro / Khosrau	Khosrau / Chosroes	
<b>Kraso</b>	Craso	Crassus	Crassus	<i>Marcus Licinius Crassus</i>
<b>Krates</b>	Crates	Cratès	Crates	Κράτης
<b>Kratilo</b>	Crátilo	Cratyle	Cratylus	Κρατύλος
<b>Kratino</b>	Cratino	Cratinos	Cratinus	Κρατῖνος
<b>Krisipo Solikoa</b>	Crisipo de Solos	Chrysippe de Soles	Chrysippus of Soli	Χρύσιππος ὁ Σολεὺς
<b>Kritias</b>	Critias	Critias	Critias	Κριτίας
<b>Kriton</b> (ADIBIDEZ: Kriton Atenaskoa, Kriton Herakleakoa)	Critón	Criton	Crito	Κρίτων
<b>Ktesias</b>	Ctesias	Ctésias	Ctesias	Κτησίας
<b>Laodize</b>	Laodice	Laodicé	Laodice	Λαοδικη
<b>Leliano</b>	Leliano	Lélien	Laelianus	<i>Ulpus Cornelius Laelianus</i>
<b>Lentulo, Publio Kornelio</b>	Lentulo, Publio Cornelio	Lentulus, Publius Cornelius	Lentulus, Publius Cornelius	<i>Publius Cornelius Lentulus</i>

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Latina / Grekoa
<b>Leokares</b>	Leocares	Léocharès	Leochares	Λεοχάρης
<b>Leon I.a edo Leon Traziarra</b>	León I / León el Tracio	Léon Ier / Léon le Thrace	Leo I / Leo the Thracian	<i>Flavius Valerius Leo Augustus</i>
<b>Leonidas</b>	Leónidas	Léonidas	Leonidas	Λεωνίδα
<b>Lepido</b>	Lépido	Lépide	Lepidus	<i>Marcus Aemilius Lepidus</i>
<b>Leuzipo</b>	Leucipo	Leucippe	Leucippus	Λεύκιππος
<b>Libio Severo</b>	Libio Severo	Sévère III	Libius Severus	<i>Flavius Libius Severus Serpentius</i>
<b>Likofron</b>	Licofrón	Lycophron	Lycophron	Λυκόφρων
<b>Likurgo</b>	Licurgo	Lycurgue	Lycurgus	Λυκοῦργος
<b>Lisandro</b>	Lisandro	Lysandre	Lysander	Λύσανδρος
<b>Lisias</b>	Lisias	Lysias	Lysias	Λυσίας
<b>Lisimako</b>	Lisímaco	Lysimaque	Lysimachus	Λυσίμαχος
<b>Lisipo</b>	Lisipo	Lysippe	Lysippos	Λύσιππος
<b>Livia</b>	Livia	Livie	Livia	<i>Livia Drusilla</i>
<b>Lizinio</b>	Licinio	Licinius	Licinius	<i>Gaius Valerius Licinianus Licinius Augustus</i>
<b>Longo</b>	Longo	Longus	Longus	Λόγγος
<b>Lukano</b>	Lucano	Lucaïn	Lucan	<i>Marcus Annaeus Lucanus</i>
<b>Lukrezia</b>	Lucrecia	Lucreèce	Lucretia	<i>Lucretia</i>
<b>Lukrezio</b>	Lucrecio	Lucreèce	Lucretius	<i>Titus Lucretius Carus</i>
<b>Lukulo</b>	Lúculo	Lucullus	Lucullus	<i>Lucius Licinius Lucullus</i>
<b>Luziano</b>	Luciano	Lucien	Lucian	Λουκιανός
<b>Luzilio</b>	Lucilio	Lucilius	Lucilius	<i>Gaius Lucilius</i>
<b>Luzio Vero</b>	Lucio Vero	Lucius Verus	Lucius Verus	<i>Lucius Aurelius Verus Augustus</i>
<b>Magnentzio</b>	Magnencio	Magnence	Magnentius	<i>Flavius Magnus Magnentius</i>
<b>Magno Maximo</b>	Magno Máximo	Maxime / Magnus Maximus	Magnus Maximus / Maximianus /	<i>Flavius Clemens Magnus Maximus Augustus</i>
<b>Magon</b>	Magón	Magon	Mago	

<b>Euskara</b>	<b>Gaztelania</b>	<b>Frantsesa</b>	<b>Ingelesa</b>	<b>Latina / Grekoa</b>
<b>Maioriano</b>	Mayoriano	Majorien	Majorian	<i>Flavius Julius Valerius Majorianus Augustus</i>
<b>Makriano Gaztea</b>	Macriano el Joven	Macrien le Jeune	Macrianus Minor	<i>Titus Fulvius Iunius Macrianus</i>
<b>Makriano Zaharra</b>	Macriano el Viejo	Macrien	Macrianus Major	<i>Fulvius Macrianus</i>
<b>Makrino</b>	Macrino	Macrin	Macrinus	<i>Marcus Opellius Severus Macrinus Augustus</i>
<b>Makrobio</b>	Macrobio	Macrobe	Macrobius	<i>Macrobius Ambrosius Theodosius</i>
